

FIBROMIALGIA ETA NEKE KRONIKOAREN SINDROMEAK, XX. MANIFESTUA

Fibromialgiaren eta Neke Kronikoaren Sindromearen NAZIOARTEKO EGUNA

Aurten ere **FIBROMIALGIAREN ETA NEKE KRONIKOAREN SINDROMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA** ospatzeko bildu gara. Urtero bezala, aukera paregabea da adierazteko egindako lanarekin pozik gaudela, bai eta lortutako garaipenekin ere, eta gaixoen, senideen eta elkarten artean jositako elkartasun-sareekin.

Pertsona baikorrak gara, borrokalariak, itxaropentsuak eta esker onekoak, baina ez gara inozoak, eta beti egoten gara erne eta prest gure duintasunaren eta eskubideen alde borroka egiteko. Izan ere, badakigu nahi baino gehiagotan gure gaixotasunak zalantzan jartzen dituztela askok, baita ustez eskubide horiek bermatu beharko lituzketenek ere.

Eta hori esaten dugu aurten bidegabekeria handia jasan dugulako. *Desgaitasun-maila onartu, aitortu eta sailkatzeko prozedurari buruzko Errege Dekretuaren Proiektuari* buruz ari gara, eta zehazki minarekin (eta nekearekin) zerikusia duen urritasuna (min horrek emaitza objektiborik ez duenean) ebaluatzeko gomendio eta mekanismoei buruzko atalari buruz. Ikusi dugunez, **sinesgarritasun txikia duten pertsonak** aipatzen dira testuan. Termino hori ez dugu beste inon aurkitu beste gaixotasun batzuei dagozkien ataletan, eta behin betiko testutik ezabatzeke eskatu dugu.

Dagoeneko esan dugu **EZ GARELA INOZOAK**, eta badakigu balizko edo egiazko iruzurgileak badirela gizarteko arlo guzti-guztietan. Gai honetan ahalik eta gardentasunik handiena izatea defendatzen dugu, beraz, eta gure zergekin laguntzen dugu iruzurrak non ematen diren argitu ahal izateko, baita gizarte-prestazioen eremuan ere.

Badakigu zaila izan daitekeela mina eta nekea kuantifikatzea BEHIN BETIKO PROBARIK existitzen ez denean, baina dokumentu horrek bidea irekitzen die edonolako interpretazio edota asmoei, eta aukera ematen du kolektiboaren inguruko susmoak sortzeko. Gainera, hainbeste urtez jasan behar izandako klixearen definizio berria ematen du, eta arriskua sortzen du denok igartzeko "**histeriko**" gisa sailkatuta egotetik "**itxurati**" gisa sailkatuta egotera. (Elkartasuna adierazi nahi diegu buruko gaitzak pairatzen dituzten eta estigmatizazioa bizi duten pertsone).

Ezin da besterik gabe deuseztu ANAMNESIS delakoan edo historia klinikoan oinarritutako medikuntzaren printzipioa, mediku on orok gaixoari egin behar diona (eta gehienek egingo dutena, seguru asko). Izan ere, Gregorio Marañón doktoreak zioenez, "**medikuntzaren asmakizunik onena gaixoa esertzeko aulkia da, zer gertatzen zaion azaltzeko erabiltzen duena**". Hau da, ekintza horrek **elkarrekiko konfiantza** du oinarri; horren bidez, diagnostia eta tratamendua bideratu ahal izaten dira eta, jakina, une bakoitzean eskura dauden baliabide teknologikoekin egindako probekin osatu ahal izaten da.

Bestalde, **PERTSONA BAIKORRAK** gabela ere esan dugu. Oraingo honetan **20. Manifestu Bateria** iritsi gara, eta nolabaiteko ospakizun-kutsua ere eman nahi izan diogu, elkarri irribarre egin, besarkada eman, azaldu, eskertu eta sentimenduak adierazi nahi dizkiogulako, gure hurbilekoekin, maite eta errespetatzen gaituztenekin, elkartasuna adierazten digutenekin.

Aldarrikapenaren bandera egunero-egunero goratzen dugu, mediku espezialistekin, administrazioarekin, lagunekin, lankideekin, nagusiekin, sindikatuekin, epaileekin eta abar, hobekuntzak lortu ahal izateko prebentzioan, tratamenduetan edota ikerketan. Hori guztia egiten dugu gure bizitza, gure familia, lana, bizitza soziala... berreskuratu ahal izateko, eta behin betiko gairatzeko ulermen eta errespetu faltaren amesgaizto hau, horrek are gogorragoak bihurtzen baititu gure mina eta nekea.

Era berean, aurreko urteetan bezala, elkartasuna adierazi nahi diegu Sentikortasun Kimiko Anizkoitza eta Elektrohipersentikortasuna deritzen gaixotasunak pairatzen dituztenei, haiekin diskriminazio ugari elkarbanatzen baititugu, eta haiek ere egunero eta etengabe borrokatzen baitute beren duintasunaren eta eskubideen alde.

Ikerketa zientifikoek min kronikoa jasateko arrisku-faktore gisa hartu zituztenean haurtzaroan eta nerabezaroan **sexuagatik** jasandako sexu-abusuak, indarkeria eta diskriminazioak, Emakumea, Mina eta Diskriminazioaren Behatokia sortu zen, gizarte-aldaketekin batera aurrera eginez. Denborarekin, maitasunez zabaldu genien elkarreterako atea **gizonei**, hainbat urtez **mina pairatzen eta isilik** egon ondoren borrokan sartu baitziren. Oraingoan, aldiz, ezkutuan egon den eta orain gutxi arte askorik ikertu ez den beste kolektibo bat ere ikusarazi beharrean gaude, arrisku-faktoreei beste dimentsio bat eransten diena: **LGTBI kolektiboa**, hain zuzen, bereziki estigmatizatua eta indarkeriaren biktima izan baita. Hain da horrela, ezen duela urte batzuk ikusi baikenuen beharrezkoa zela **Emakumea-Mina binomioaren korrelazioa zabaldu eta Generoa-Mina binomioa zehaztea**.

Azkenik, aurten ere gure aldarrikapen nagusia errepikatu beharra daukagu. Hain preziatua den **EKITATEA** eskatzen dugu, Osasun eta Gizarte Sistema Publikoaren funtsezko oinarri gisa, kalitatezko aukera berberak izateko, bai behar ditugun arretan eta tratamenduetan, bai gizarte-prestazioetan, behar izatekotan. **Bitartekaritza-erakunde** bat egotea ere aldarrikatzen dugu, eskubideak urratzeagatik gatazkarik sortuz gero harengana jo ahal izateko; erabakitzeko ahalmen publikoa dutenen pentsamendu edo uste pribatuetatik at egongo dena.

Ez da zilegi klaxe faltsuetan harrapatuta egotea eta pixkanaka, edo bat-batean, hainbeste pertsonaren duintasuna txikitzea. Esku batekin **errespetua eskatzen dugu** eta,aldi berean, **modu arduratsu eta proaktiboan**, beste **eskua luzatzen diegu gurekin batera aurrera egiteko prest dauden guztiei**.

2022ko maiatzak 12

